

EUSKAL ELIZBARRUTIETAKO MISIOEN KANPAINA



KUTXABANK-BBK _____ ES52 2095 0000 71 2000055574

LABORAL KUTXA _____ ES96 3035 0019 99 0190016957

BIZUM _____ 00897

MESEDEZ: Sarrera egitean, lehenik eta behin haxe jarri: **HERRIA – PARROKIAREN IZENA** (izen bereko parrokiak bereizi ahal izateko). Adibidez: **Getxo – Andra Mari**; tlf: 94 401.36.99 mail: mesiobi@bizkeliza.org.

Agur bero bat:

Aurreko urteetan lez, aurton be, hain zuzen be, martxoaren 20an, ELEIZBARRUTIETAKO MISINOEN eguna ospatuko dogu euskal Eleizbarrutietan, goiburu honegaz:

“Konpromisoa barrituz. Renovamos el compromiso”

Aurtengo kartela kolorez, mobimentuz beteta dago, Eliza, ate eta leihoak zabalik dituan alkarte bizi garalako. Eta bertatik Argia eta Espiritua ataraten da. Jesusen bihotzak misinora garoaz, hegoalderantz bultzatuz, beso eta besarkada abegitsuz, mundura zabalik dan Eleiza lez.

Dei barria *misioan ausardia sortzailea* erakusteko, gotzainek eskatzen deuskuen lez. Aukera barria mundu osoan senidetasuna hedatu eta Jainkoaren Erreinua eraikitzen hemen eta orain, danok batera. Zabaldutako daigun gure alkartearen ikuspuntua Kristorenganako eta Eleizaganako fedearen berariazko unibertsaltasunerantz: gertukotik hasi eta unibertsalera jo. Eleiza misiolari lez, misino ebanjelizatzailea martxan jarri behar dogu, munduan egon behar dogu, desbardintasuna eta bidegabekeria dagoan lekuan.

Eleiza misiolari izanda, gure ekarpen eskuzabala egin daikegu eta gure misiolariak sakrifizio eta ilusino handiz garatzen diharduen pastoral eta gizarte egitekoa sustatzen lagundu. Eredu eta dei dira guretzat euren zerbitzuagaitik, eskaintzagaitik, eta misino-senidetasunetik guztion ona hedatzeko KONPROMISOAGAITIK. Aurtengo goiburuan esaten dan lez, kanpaina honek lagunduko ahal deusku gure misino-konpromisoa sendotzen eta barritzen.

Aurkeztu daigun eleizbarruti arteko kanpaina hau gure inguruan, zaindu eta parte hartu daigun ospakizunean, sustatu daigun katekesia, egun hau ilusinoz eta pozez agertzera emon daigun.

Misinoen www.misioak.org web orrialdean aurkituko dozue kanpaina honen inguruko guztia:

- Katekesiko umeekin lantzeko lagungarriak
- Egunaren inguruko kartelak (Ordezkaritzan eskatu daikezue)
- Liburuxka: gotzainen gutuna, Misinoen egunerako liturgia lagungarriak
- Los Rios aldizkariaren martxoko alean (271) jasoten dan oroitza-txostena
- Ppointa ospakizunerako, pdf eta ppoint formatuan pastoral errealidade bakoitxera egokitu ahal izateko. Lagundutako egitasmoen buruzko informazioa.
- Laguntzeko bideen inguruko barriak, kontu-zenbakiak, e.a.

Misinoen egun ona izan eta eskerrik asko zuen arreta eta eskuzabaltasunagaitik.

Besarkada bat,

Felicitas Martín Fernández
Misinoetarako Eleizbarrutiko Ordezkaria

Senide maiteok: konpromisoa berrituz, *renovamos el compromiso*. Hauxe da zuen gotzainen lehen hitza eta San Jose eguneko 2022ko kanpainarako goiburua.

Lehenik eta behin, eta beste ezer baino lehen, betiko konfiantza helaraztea ezinbestekotzat jotzen dugu. Jainkoak handikiro jokatu badu gure alde, nola uko egin bere maitasuna helarazten jarraitzeari? Hirurogeita hamar urte bete baditugu Eliza ahizpa horrekiko lankidetzan, nola uko egin gaur egun ere borborka sortzen ari den misio hori sendotzeari? San Jose egunaren atarian, Frantzisko aita santuak 2021ean, Bokazioen Munduko Egunez, egin zuen bezala, zera galdetzen diogu geure buruari: "Nola susta daiteke fideltasun hori? Jainkoaren fideltasunaren argitan. San Josek ametsetan entzun zituen lehen hitzek beldur oro uxatzeko dei ziren, Jainkoak leial betetzen baititu bere agintzariak: «Jose, Daviden ondorengoa, ez izan beldurrik» (Mt 1, 20). Deiaren bidean, zure lehen maitasunera bueltatzean berriz aurkituko dituzun hitzak dira. Eguneroko fideltasunean, San Josek bezala bere bizitzarekin Jainkoari baiezkoa ematen dionaren ahotan errepika bezala etengabe entzun daitezkeen hitzak dira.

Jainkoari fideltasuna eskatzen diogu, bigarrenik, besteekiko hartu-emanik eta maite ditugun pertsonen afekturik gabe, geure etxeetan egotera behartu gaituen pandemiak erasandako garaiak bizi ditugulako. Gaixotu egin gara, asko eta asko hil egin da. Ahul sentitu eta beldurrez egon gara. Apurka-apurka, egoera hau gainditzeko ari garela ematen du, hala ere, shock egoeran gaude, ikaratuta eta lotuta. Mesfidati guztiaren eta guztien aurrean. Dagoeneko babesten ez bagaituzte ere, gure pasibotasuna justifikatzen duten oskol-geruzen azpian ezkutatuta.

Hauxe dio Aita Santuak *Patris Corde* agiriaren 4. zenbakian: "Askotan, ulertzen ez ditugun gertaerak izaten dira gure bizitzan. Lehen jarrera, sarritan, etsipena eta jazartzea izaten da. Josek, bere arrazoiketarik alde batera utzi eta gertatzen denari bide ematen dio, eta, erabat misterioitsu iruditzen arren, onartu egiten du, erantzukizuna bere gain hartu eta bere historiarekin adiskidetu egiten da. Gure historiarekin bakeak egiten ez baditugu, ezin izango dugu hurrengo urratsa eman ere egin, beti izango garelako gure itxaropenen eta ondoriozko etsipenen gatibu. Joserik bizitza espiritualak bide *argitzailea* ez ezik bide *abegitsua* agertzen digu".

Bizi ditugun inguruabar zehatz hauek onartu egiten ditugu San Josek bezala. Bere *onarpena*, *eraginkorra* da, inoiz ez du ez uko egiten, ez amore ematen, ez da pasibotasunez etsia haritzen duen gizona. Protagonista ausart eta sendoa da.

Horregatik, hirugarrenik, hark bezala, misioan ausardia sortzailearen alde egiten dugu gaur. Muturreko egoeran, korta hura bizitzeko moduko leku bihurtzeko gauza izan zen eta gaez Egiptora ihes egin zuen mehatxatuta zegoen hauraren eta bere amaren bizia salbatuz. Aita Santuak *Patris Corde* idazkiaren 5. zenbakian dioenez, "ametsek inoiz bururatu ere egin ez zitzaizkion abenturetara eraman zuten Jose. Askotan, "haurtzaroko Ebanjelioak" irakurririk, Jainkoak zer dela-eta ez zuen zuzenean eta argi eta garbi esku-hartu galdetzen diogu geure buruari. Baina Jainkoak gertaera eta pertsonen bitartez esku-hartzen du. Jainkoak Jose aukeratu zuen bitartekari bezala salbazioaren historiaren hasierarako. Jose izan zen benetako "miraria" eta haren bitartez salbatu zituen Jainkoak Haurra eta bere ama".

Mirari horren partaide gara. Zenbat eta zailtasun gehiago, orduan eta gogo handiagoa. Mundu honetako txirotuek behar gaituzte. Munduaren, elkartasunaren, txirotuen, Jainkoaren Erreinuaren, biziaren aldeko konpromisoa berritzeko ordua dugu. Gure misio-konpromisoa berritzeko ordua da. Gure laguntzaren jasotzaile diren egitasmoen bitartez ekarpen esanguratsua egiten dugu Hegoaldeko elkarreentako bizi-baldintzen hobekuntzari begira. Misio-konpromiso honi eusten lagunduko digun esku gehiago behar dogu. Domund egunez, "ikusi eta entzundakoa kontatzera" deitu gintuen. Orain, beste urrats bat eman eta kanpoaldeetara, mugetara jo eta oinazetan dauden pertsonekin konprometitu egin behar dugu. Eta geure buruari galde diezaiokegu: Zer eskain dezaket? Nola egin bat misio-konpromisoarekin? Nola berri dezaket mundu honetako txirotuen aldeko konpromisoa? Nola borroka dezaket Jainkoaren Erreinuaren alde?

"Behin eta berriz galdetu behar diogu geure buruari era misterioetsuen geure ardurapean, geure zaintzapean, geure babespean dauden Jesus eta Maria babesteko benetako ahaleaginean dihardugun. Izan ere, behartsu bakoitza, pobre bakoitza, oinazetsu bakoitza, hiltzorian dagoen bakoitza, atzerritar bakoitza, preso bakoitza, gaixo bakoitza, Josek zaintzen diharduen "Haurra" dira. Horregatik erregutzen zaio san Joseri pobreen, behartsuen, erbesteratuen, atsekabetuen, txiroen, hiltzorian dauden zaintzaile bezala. Eta horrexegatik Elizak ezin dio txikienei maitatzeari utzi, Jesusentzat kutunenak direlako eta beraiekin bat egiten duelako." *Patris Corde* 5

Jarrai dezagun elkarri laguntzen hil edo biziko galdera hauei erantzuteko. Zuen esanetara gauzkazue, gure lan, maitasun eta bedeinkapena eskainiz.

Juan Carlos Elizalde – Gasteizko Gotzaina
Joseba Segura – Bilboko Gotzaina

Jose Ignacio Munilla – Donostiako Elizbarrutiko Administrazioaile, Orihuelako Gotzain hautatua

KONPROMISOA BERRITUZ - RENOVAMOS EL COMPROMISO

Bizi dugun egoera da abiapuntua: pandemiak geure etxeetan ateak itxita egotera eraman gaitu, ez dugu kontakturik izan besteekin eta senide eta lagun maiteen afektua falta izan dugu. Ahul sentitu eta beldur izan gara. Apurka-apurka, egoera hau gainditzen ari garela ematen du.

Eta pandemiak geldiarazi bagaitu ere, orain ateak irekitzeko eta barruak aireztatzeko ordua dela uste dugu, besteen bila ateratzeko ordua, ezagunen eta maite ditugunen eta ezezagunen eta behar gaituztenen bila ateratzeko ordua. Gure misio-konpromisoa berriztatzeko ordua da.

Irten, zerumugak ireki, ezagutu, sakondu, kontrastatu, UTOPIA, gizadi berrirantz jo.

Domund egunez, "ikusita eta entzundakoa kontatzera" deitu gintuen. Orain, beste urrats bat eman eta kanpoaldeetara, mugetara jo eta oinazetan dauden pertsonekin konprometitu egin behar dugu.

Hara zein galdera sor dakigukeen: Zer eskain dezaket? Nola egin bat misio-konpromisoarekin? Nola berri dezaket mundu honetako txirotuen aldeko konpromisoa? Nola borroka dezaket Jainkoaren Erreinuaren alde?

Beldur ez izateko diosku behin baino gehiagotan Jesusek: «*Zergatik beldur hori? Nolatan duzue oraindik hain sinesmen gutxi?*» (Mk 4, 40).

Berarengan sinesteko eta gure lehentasunak jartzeko: «*Ardura zaitezte, batez ere, Jainkoaren erregetzaz eta haren nahia betetzeaz, eta beste hori guztia gehigarritzat emango dizue Jainkoak*». (Mt 6, 33).

Errealitateari maite-begiez begiratzeko diosku: «*Baina bidaian zen samariar bat bertara iritsi eta, hura ikustean, errukitu egin zitzaion*» (Lk 10, 33).

Eta pertsona ahulenen esanetara jartzeko: «*Benetan diotsuet: Nire seniderik txikien hauetako edozeini egin zeniotena, neuri egin zenidaten*» (Mt 25, 40).

Euskal Elizbarrutietako Misioek herrialde txirotuetako eliza ahizpen aldeko konpromisoa berritu egin nahi dugu. Gure laguntzaren jasotzaile diren egitasmoen bitartez ekarpen esanguratsua egiten dugu Hegoaldeko elkarteetako bizi-baldintzen hobekuntzari begira.

Misio-konpromiso honi eusten lagunduko digun esku gehiago behar dogu. Misio-deia entzuteko gauza izango diren eta duela 70 urte ingurutik hona hiru euskal elizbarrutien funts bihurtu den egiteko honekin bat egingo duten pertsonak.

Berri dezagun gure konpromisoa munduaren, gizon-emakume txirotuen, elkartasunaren, Jainkoaren Erreinuaren eta biziaren alde. Gure misio-konpromisoa berritzeko ordua da.

SARRERAKO OHARRA

Egun on (arratsalde on). Garizuman aurrera jarraitzen dugu, Pazkora bidean. Gaurko Hitzak erakusten digu Jainkoa beti arduratzen dela sufritzen ari denaz, beti entzuten duela sufritzen ari denaren erregua. Eta Jesusek aurkezten digun Jainkoak bere zaintzak eskaintzen dizkigu, Ebanjelioaren parabolaren bezala. Gogora dezagun era berean atzo San Jose jaia ospatu genuela. Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako lurraldeetako gure elizbarrutietan jai horrek beti ekartzen dizkigu gogora Elizbarrutietako Misioak. 70 urtetik gora igaro dira jada lehen misiolariak atera zirenetik. Kanpaina honen goiburua hau da: "Renovamos el compromiso / Konpromisoa berrituz". Hain zuzen ere, misioan egoteko modua berritzera animatzen gaitu, han edo hemen.

Eman diezaiogun hasiera ospakizunari.

BARKAMENA

Zaintzen gaituen Jainko errukitsuari zuzenduko gatzaizkio.

- . Barkamena eskatzen dizugu gure elkartasun faltagatik. Erruki, Jauna
- . Barkamena eskatzen dizugu, ez baitugu jakin okerren dagoenaren tokian jartzen. Kristo, erruki
- . Barkamena eskatzen dizugu, gudan baino ez baitugu pentsatu. Erruki, Jauna

IRAKURGAIEN OHARRA

Irteera liburuan, Moisesek Jainkoaren eta bere herriaren artean bitartekari gisa egiteko zuen bokazioaz hitz egiten zaigu. Jainko horrek ikusi egiten du, entzun egiten du eta sufritzen duenari erreparatzen dio. Lur sakratua da, kontuz nola zapaltzen den.

Ebanjelioan, mahastizain batez hitz egiten digu Lukasek, eta esaten digu prest dagoela mahastia zaintzeko, kimatzeko eta fruitua emateko beharrezko lan guztiak egiteko.

Entzun dezagun arretaz.

HOMILIARAKO IRADOKIZUNAK***Jainkoaren hitza:***

Irteera liburuan, ikusten dugu Jainkoa ez dela pertsonen errealitatetik urrun dagoen norbait. Jainkoak erne ditu bere zentzumen guztiak, ikusteko, entzuteko eta erreparatzeko; eta Moises aukeratzen du, herriaren aurrean bitartekari gisa aurkeztu dadin. Jainkoa ez dago pozik pertsonen sufrimenduarekin, Jainkoak ez du gustuko pertsona batzuk beste batzuek aprobeitatzeari, baizik eta gizaki guztiok duintasun berarekin bizi gaitzen bilatzen du Jainkoak, eta fededun garen aldetik, Jainkoaren seme-alabak izateak ematen digun duintasunarekin bizitzea.

Misioak ditugun tokietan bizi direnek badute Egipton juduek bizi izandakotik zerbait... Iparraldeko herrialdeek dezente dugu Egiptoren jokaeratik.

Lukasek azaltzen digu, alde batetik, gure munduan gertatzen den zorigaitzaren erantzukizuna ez dela, halaber, pairatzen duenarena (zerbait egingo zuten gaizki). Bestetik, pikondoa mozteko proposamena dela eta... horren ordezkari Jesusek zaintza proposatzen du, mimos tratatzea, errealitatea alda dadin.

Kartela: Kartel itxaropentsua aurkezten digu Fanok. Kartelaren goialdean urdin iluna ageri da, behealdean urdin argiago bat, eta erdian, aldaketa hau ahalbidetzen duen eszena.

Iluntasun eta galera uneetatik irten gara, eta hegoalderantz jotzean argia berreskuratzen dugu.

Goialdean Eliza duen mundu bat ikus dezakegu, hau da, gure elizbarrutiak ageri dira, hiru katedralen bidez irudikatuta. Hiru elizbarrutiek baserri bakarra osatzen dute, kristau elkarte bakarra. Ateak eta leihoak zabalik daude, gure elizetako bihotzean sortzen den espirituak bidal gaitzan.

Bihotz horretatik itxaropena sortzen da (soineko berdea), espiritua izan dadin konpromisoa berritzea ahalbidetzen duena.

Hegoaldera jaitsi behar da, pobretuengana, txikiengana, besoak zabalik babesteko, partekatze eta baita jasotzeko ere.

Misioa izango da gure fededun izatearen eta gure elizbarrutien egunsentia.

. Konpromisoa berrituz:

Garai zailak bizitzen ari gara. Pandemiak geldiarazi egin gaitu, beldurrak direla-eta poliki doa nolabaiteko "normaltasunerako" itzulera... Aurtengo kanpainaren goiburuak –alegia "Konpromisoa berrituz" goiburuak– animatu egiten gaitu lehenago egiten ari ginen horri berriro ekitera, eta gainera, indar berriekin ekitera animatzen gaitu, errealitate horiei begiratzeko lagungarria izan dezagun.

DOMUND egunean, "Ikusitakoa eta entzundakoa" kontatzeko esan ziguten, eta orain beste urrats bat ematea dagokigu, bakoitzak zer ekarpen egin dezakegun aztertzea, bai norberak eta bai duela 70 urte baino gehiago elizbarruti gisa hartu genuen konpromiso hori berritzeko.

ESKARIAK

Egin diezaiogun otoitz bere seme bakarra eman zigun Aitari, inor galtzea nahi ez duen horri, gu guztiok betiko bizitza izan dezagula nahi duen horri.

Entzun Jauna, gure eskaria

1.-Eska dezagun gaur Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako elizbarrutietako elizen alde; sinodo-garai honek, Espirituaren indarrarekin, misioaren aldeko konpromisoan lagundu diezagun. Guztiok egin dezagun lan, mundu errukitsuagoa eraikitzeko. ESKA DIEZAI OGUN JAUNARI

2.- Ekuadorreko, Kenyako, Ruandako, Kongoko eta Angolako kristau elkarten eta misiolarien alde; beren bizitzeko moduarekin pobreen Jainkoa gerturatu diezaguten, eta guk, elkertasunez, gure otoitza eta ekarpen ekonomikoa eskain diezaiegun. ESKA DIEZAI OGUN JAUNARI

3.- Gure elizbarrutietako elkertasun eta misio taldeen alde; lurreko pobreekin dugun gure misio-konpromisoaz gehiago jabetzen lagundu diezaguten. ESKA DIEZAI OGUN JAUNARI

4.- Ospakizun honetan parte hartzen ari garenon alde; besteei emanda eta elkertasunean bizituz beti egon gaitzen Jainkoaren gurutzetik datorren argiari zabalik eta argi horren lekuko izan gaitzen. ESKA DIEZAI OGUN JAUNARI

AZKEN OTOITZA

Gizakion Aita eta Jauna zaren hori, gizaki guztiak duintasun berarekin sortu zenituen, sorrarazi gure bihotzetan senide-espiritua. Inspiratu iezaguzu topaketa-, elkarriketa-, justizia- eta bake-ametsa. Bultzatu gaitzazu gizarte osasuntsuagoak eta mundu duinagoa sortzera, goseterik gabea, pobreziarik gabea, indarkeriarik gabea, gerrarik gabea.

Gure bihotza zabaldu dadila lurreko herri eta nazio guztietara, horietako bakoitzean erein zenuen ongia eta edertasuna ezagutzeko, eta lotura estuak ezartzeko batasunerako, proiektu amankomunetarako eta itxaropenak partekatze. Amen

2021ean LAGUNDUTAKO EGITASMOEI BURUZKO INFORMAZIOA

Misioetarako Ordezkaritzak ebanjelizatze eta garapenerako egitasmoei laguntzeko dituen diru-baliabideak sentiberatasuna pizteko egiten diren kanpainen bidez (parrokietan, ikastetxeetan, etxe erlijiosoetan, partikularren artean,...) iristen zaizkionak dira; horrezaz gainera, dohaintzak jasotzen ditu, dohaintza bereziak, partikularrenak, herentziak, e.a.

Euskal Elizbarrutietako Misioek 2021ean nartutako egitasmoei buruzko informazio hori Los Ríos aldizkariaren martxoko alean (271. zenb.) jasotzen da, OROITZA-TXOSTENA atalean. Bizkaitik, 144.372,82 eurotako ekarpenak egin dira. Misioen www.misioak.org orrialdean ikus dezakezue aldizkaria. Hainbat arlotako –heziketa, osasuna, gizarte garapena, Giza eskubideak, misiolariak jarduten duten parrokiei hainbat beharri aurre egiteko laguntzak...- 45 egitasmori (Afrikako 7 herrialdeetan eta Hego Amerikako 6tan) lagundu izan zaie.

Horiei laguntzeaz gainera, 2021ean, Bilboko Ordezkaritzatik beste 8 egitasmotan be –heziketa, ebanjelizazioa, haurrak...- lagundu du, 82.000,00 euro jarritz.

Bilboko gotzaitegiko kuriaren eta Alkar Kutxaren aurrekontuetatik garapenerako laguntzarako jartzen den %1a zein egitasmotarako den ere azaltzen da. 60.000€.

APOYADOS DESDE LA DELEGACION DE MISIONES MISIOETARAKO ORDEZKARITZAK BABESTUAK				
LUGAR LEKUA	SECTOR	PARROQUIA PARROKIA	NOMBRE DEL PROYECTO EGITASMOAREN IZENA	CANTIDAD APORTADA
QUITO-ECUADOR	EDUCACION	ANUDANDO, espacio de formación integral de las mujeres	"Feminización de la pandemia: aumento de las violencias, desempleo, empobrecimiento y pérdida de los derechos de las mujeres".	10.000,00 €
CALCETA-ECUADOR	EDUCACION	ESCUELA SUPERIOR POLITÉCNICA AGROPECUARIA DE MANABÍ (ESPAM MFL)	APOYO TECNOLÓGICO PARA EL SEGUIMIENTO DE LA ACTIVIDAD LECTIVA ONLINE DEL ALUMNADO DE LA ESPAM MFL	15.000,00 €
ARGENTINA	EVANGELIZACION	PRELATURA DE HUMAHUACA	COMPRA DE VEHICULO TODO TERRENO	6.000,00 €
R.D.CONGO	EVANGELIZACION	P.XABIER GOICOURIA-Congregación WAMAMAS wa Betanie	Apoyo hogar de acogida de niños, ancianos	5.000,00 €
R.D. CONGO	EVANGELIZACION	DIOCESIS DE INONGO	Rehabilitación capilla seminario- 2ª fase	7.000,00 €
R.D CONGO	ALIMENTACION	DIOCESIS DE INONGO	Crianza de vacas para autofinanciación de sacerdotes de la diócesis	3.000,00 €
R.D. CONGO	EDUCACION	BUKAVU	CONSTRUCCION TALLER JOVES CIEGOS	4.000 €
LOMÉ / TOGO	EDUCACION	Comunidad ADSIS, Togo. Presenta el proyecto la Asociación ADSIS de Leioa	"Foyer" en francés significa "hogar". En un sentido alegórico, "foyer" significa el lugar donde se hace el fuego, esto es, el lugar donde la luz o el calor irradian y alrededor del cual se reúne la familia.	17.000 €
	EVANGELIZACION	FONDO NUEVA EVANGELIZACION		15.000 €
				82.000,00 €

**APOYADOS DESDE EL FONDO 1% DE LOS PRESUPUESTOS DEL OBISPADO DE BILBAO BILBOKO GOTZAINDEGIAREN
AURREKONTUEN % 1 FONDOTIK BABESTUAK**

LUGAR LEKUA	SECTOR	PARROQUIA PARROKIA	NOMBRE DEL PROYECTO EGITASMOAREN IZENA	CANTIDAD CONCEDIDA
ECUADOR				
	EDUCACION	ANUDANDO, espacio de formación integral de las mujeres	"Feminización de la pandemia: aumento de las violencias, desempleo, empobrecimiento y pérdida de los derechos de las mujeres".	2.500 €
	EDUCACION	CALCETA/ ESCUELA SUPERIOR POLITÉCNICA AGROPECUARIA DE MANABÍ (ESPAM MFL)	APOYO TECNOLÓGICO PARA EL SEGUIMIENTO DE LA ACTIVIDAD LECTIVA ONLINE DEL ALUMNADO DE LA ESPAM MFL	5.000 €
	EVANGELIZACION	DIOCESIS DE BABAHYOYO	APOYO FORMACION SEMINARISTAS	4.000 €
	EDUCACION	CHONE-MANABI	EDUCACION CON EQUIDAD PARA TODOS	4.000 €
PERÚ	EDUCACION	ALTO TRUJILLO	ALTO TRUJILLO ECOAMIGABLE Y EMPODERADO	3.000 €
MEXICO	SALUD	CHIAPAS	HOSPITAL SAN CARLOS, brinda atención de salud con énfasis hacia la población indígena	4.000 €
VENEZUELA	ALIMENTACION	BARLOVENTO	OLLA SOLIDARIA	2.500 €
CUBA	ALIMENTACION		ATENCION NUCLEOS FAMILIARES(20)	3.000 €
KENIA	EDUCACION	8 DIÓCESIS: Muranga, Nairobi, Nyeri, Ngong, Embu, Machakos, Mombasa y Malindi	"Fortalecimiento y capacitación de sacerdotes obreros"	2.000 €
BRASIL	EDUCACION		"Tierra, Techo y Trabajo para una Vida Digna".	2.000 €
INDIA	EDUCACION		Formación de mujeres trabajadoras.	2.000 €
GUATEMALA	ALIMENTACION	PANACHEL. Sta. LUCIA-SOLALÁ	APOYO A LA ANCIANIDAD Y CASA DE ACOGIDA.CAMINO A ORILLAS DEL LAGO	2.000 €
R.D.CONGO				
	EVANGELIZACION	FUNDACION AMIGOS DE MUFUNGA	AYUDA ECONOMICA PARA GASTO ENVIO CONTENEDORES A KATANGA	3.000 €
	EVANGELIZACION	DIOCESIS DE INONGO	REHABILITACION CAPILLA SEMINARIO 2ª FASE	4.000 €
	ALIMENTACION	DIOCESIS DE INONGO	CRIANZA VACAS PARA AUTOFINANCIACION SACERDOTES DIOCESANOS	2.000 €
	EDUCACION	DIOCESIS DE INONGO/PARROQUIA SGRADO CORAZON DE MUSHIE	BECAS DE ESTUDIO SUPERIOR PARA 5 CHICAS SIN RECURSOS, DE ESCUELAS SECUNDARIAS DE MAI-NDOMBE	4.000 €
	EDUCACION	BUKAVU	CONSTRUCCION TALLER JOVENES CIEGOS	4.000 €
PERÚ				
	EDUCACION	INSTITUTO BARTOLOMÉ DE LAS CASAS	FE Y SOCIEDAD: UNA IGLESIA POBRE Y PARA LOS POBRES	5.000 €
	EDUCACION	EDITORIAL CEP	DIFUSION MATERIALES P. FRANCISCO	2.000 €
				60.000 €

ELIZBARRUTI ARTEKO TOPAKETA. Elizbarrutietako Misioen kanpainaren barruan eta Frantzisko aita santuak sinodo-seneko Elizaren alde egin duen apustutik, **Elizbarruti arteko** topaketa egingo dugu. Hiru elizbarrutietako hainbat arlotako pertsonak bilduko ditugu otoitz egiteko, ideia eta gogoetak batera jartzeko, elkarren gogoetak entzuteko, proposamenak egiteko eta guztion artean orain eta etorkizunean Elizbarruti misiolari bezala aurrera egiteko bideak arakatzeko. Elizbarrutietako Misioen kanpainak aukera berria ematen digu gure konpromisoa berritzeko eta urrats eraginkorrak emateko gizarte eta eliz errealitate aldakorrean misio-erronka geure egiteko.

BIDEO-FORUMA: "Los párpados cerrados" (Erdialdeko Afrika) dokumentalari buruzko BIDEO-FORUMA. **Maiatzaren 25ean ospatuko da. Emango dugu horren berri!**

ELEIZBARRUTIAREN DIRU-EKARPENA

Eleizbarrutietako Misioetatik eskerrak emon gura deusueguz urtean zehar Misioetan erakusten dozuen eskuzabaltasunagaitik eta egiten dozuen guztiagatik.

Taldeek, parrokiek, eta partikularrek egiten douzuezan dohaintza eskuzabalen barri dogu eta laguntza horrek herrialde desbardinetan jarduten daben misiolarien beharrizan materialei aurre egiteko balio daukela esan gura deusuegu.

Misioen jardunaldia dala-eta, eskerrak emon gura deuseguz euren misiolari zerbitzuagaitik eta eskerrak emon gura deusueguz diruz laguntzen deuskuzuenoi, hori ezinbestekoa da-eta, misiolari egitekoak aurrera egin daian.

Banku-eta kutxa-zenbakiak gogoratzen deusueguz

KUTXABANK-BBK _____ **ES52 2095 0000 71 2000055574**

LABORAL KUTXA _____ **ES96 3035 0019 99 0190016957**

BIZUM _____ **00897**

MESEDEZ: Sarrera egitean, lehenik eta behin hauxe jarri: **HERRIA – PARROKIAREN IZENA** (izen bereko parrokiak bereizi ahal izateko). **Adibidez:** Getxo – Andra Mari
tlf: 94 401.36.99 mail: misiobi@bizkeliza.org.

Misiolari guztien erakundearen izenean, agur bero bat.

ESKERRIK ASKO!